

## **GURE BIZITZAK ERDIGUNERATZEKO AGENDA PARTEKATUA ETA BURUJABETZAK: BIZITZA ERDIGUNEAN JARTZEA BURUJABETZA KONTUA DA**

Ponentziaren laburpen bat

### **ZERI egin behar diogu aurre?**

Sistema kapitalistak bere muga ekonomiko, ekologiko eta sozialekin topo egin du, tresna zahar eta berriak indartu eta ahalik eta kapital gehiena metatzea helburu nagusi du. Azken urte hauetan, besteak beste, esplotazio moduen indartzea bizi izan dugu, horretarako politika patriarkal, arrazista zein kolonialistak berrindartu direlarik: desjabetzeen, merkantilizazio prozesuen, eremu publikoaren pribatizazioaren areagotzea bizi dugu, pertsonen oinarrizko eskubideak ukatu eta naturarekiko zapaltzaileak diren prozesuak han eta hemen martxan jarri dira. Halaber, ongizate estatuaren azken arrastoak desegiten ari dituzte, babes eta ongizate erantzunkizunak familia tradizionalaren esku utzi eta berau indartzen dute (genero rola, heteroaraua, eta zaintzaren feminizazioa indartuz). Kapitalak gero eta modu bortitz, autoritario eta kontserbadoreagoekin bere borondatea inposatzen du.

Sistema kapitalista eta patriarkala bere osotasunean dago krisian eta horrek krisi anizkoitzaren dimentsio ezberdinak azaleratu ditu. Hala ere, sistema krisian dagoela esateak ez du esan nahi desagertzeaz dagoenik. Historian zehar kapitalismoak behin eta berriz erakutsi du bere izaera berregituratzeko gaitasuna eta egun, horretan dabil.

Kapitalismoaren egungo izaerak (finantzarizazio amaigabea, aberastasunaren metaketa bortitza,...) noizbait izan zuen izaera distributiboaren kontra agertzen ari da (adibidez, Ongizate Estatu garaiko erreforma sozialdemokratak). Zentzu horretan, bizitzaren prekarietatea eta dualizazio soziala izugarri areagotu dira eta horrek, bizi-mailaren hazkunde orokortuaren agorpena ekarri du. Finean, kapitalismoaren berregituraketa batek ezinbestean langilearen eta batez ere emakumeen\*, gazteen eta arrazializatuen baldintza material eta subjektiboan okertze orokortu bat dakar.

Honek guztiak %99ari eragiten digu, arazo kolektibo eta komun baten aurrean gaude, beraz. Hala ere, herri sektore gehiengoaren bizi baldintzak okerrerra egin badute ere, garrantzitsua da azpimarratzea kapitalaren ofentsiba honek ez gaituela denoi berdin kolpatu. Eta askotan esan dugun bezala, berriz ere emakume\* langileak eta migratuak izaten ari gara kolpatue-nak.

Norabide aldaketa behar dugu, eta horretara dator Burujabetza Feminista.

### **ZER da burujabetza feminista?**

Bizi nahi dugun bizitzaren inguruan erabakiak hartzeko ahalmena izatea da. Kapitalaren metaketa lehenesten duen sistema baten aurrean, bizitza duinak nahi ditugu eta horiek definitzeko eztabaida soziala sustatu behar dugu. Dagoeneko eztabaida horretan baditugu zenbait ideia argi:

1. Bizitza duinak denontzat dira eskuragarri edo ez dira inorentzat, beraz gure bizitza ona ezin daiteke beste baten (persona, kolektibo, herri) zapalkuntza betikotzeko eraiki.
2. Bizitza duinak mugak ditu, izan ere sostengarria izan behar da lurraldearekiko eta, beraz, buruaskitasunaren zein etengabeko hazkundearen engainutik aldendu eta bestelako balio batzuk jarri nahi ditugu erdigunean: justizia sozial eta ekologikoa, elkarrekikotasuna, aniztasunaren aitortza eta zaintza kolektiboa erdigunean jarri nahi dugu.
3. Burujabetzaz bere zentzu zabalenean ari gara: dimentsio kolektiboa eta norbanakoa batera doazela kontuan hartuz. Beraz, lurraldearen burujabetzaz ari gara, Euskal Herriaren burujabetzaz, baina baita gure gorputzen burujabe izateaz ere, lurraldearen burujabetzak ez duelako bere horretan gure bizitzak duinagoak egingo. Bizitza duinak izango ditugun lurralde aske bat behar dugu.
4. Euskaraz eta euskaratik habiatzen dugun proposamen eta prozesua da burujabetza feminista. Hizkuntza gutxituen duintasunetik abiatzen duguna alegia. Euskaraz bizitzeko eskubidea baina baita ere euskara guztiiontzako eskuragarri izateko eskubidea aldarri izanda.
5. Burujabetza feminista gauzatzeko, beharrezkoak ditugun bizibideen kontrola izan behar dugu: eremu produktibotik harago egunerokoan gure bizitzak sostengatzen eta ongizatea ematen dioten jardueren inguruan ari gara, bizibideez, orohar. Beraz, alde batetik askotariko baliabideez ari gara, materialetatik afektiboetara, eta bestetik iturri anitzak dituzten bizibideez ari gara, enplegutik jaso daitezkeen baliabideez gain, komunitatean eraikitzen diren sareetan jaso daitezkenetara. Badakigulako bizitza duinek dimentsio asko hartzen dituztela.

## **NOLA gauzatu burujabetza feminista?**

Burujabetza pertsonala, politikoa eta materiala eskuratu behar ditugu, herri prozesu horizontal baten bitartez, herriarena izango den hori, komuna, eraikitzeko. Epe luzera begiratuko duen ikuspegi estrategikoa garatu nahi dugu:

Bizitza duinak erdigunean jartzen duten prozesuak identifikatu behar ditugu, estrategikoak diren jarduerak eta bizibideak hain zuzen ere. Nolako eskuhartzea behar dute bizitza duinak denontzak eskuragarri egiten duten bizibideek, adibidez, etxebizitzak, hezkuntza ereduak edota osasungintzak? Nola irabazi genezake horien gaineko eskuhartzea, eredu patriarkal eta heteronorbatiboak erreproduzitu gabe?

Bizitza sostengatzeko jarduerak aitortu eta berrantolatu behar dira, baina, nolako aitortza eta banaketa behar dute batzuk eta besteek? Nolako denbora politikak eta baldintzak behar ditugu horretarako? Enplegu eta zaintza lanez gain, ze beste denborak behar ditugu eta zertarako?

Eta azkenik, nolako erakundeak behar ditugu gure bizitzen gaineko erabaki ahalmenak irabazteko? Hainbat arlotan: Politikoak, ekonomikoak, sozialak, eta hainbat izaerakoak: intimoak, publikoak, komunitarioak. Nolako babes sareak eraiki behar ditugu? nolako zerbitzu publikoak?

Asko dugu eztabaidatzeko.

Bitartean, urgentziatzko egoeren aurrean bizitza duinen azken atalaseak babestea dagokigu: lan-baldintza duinen alde, etxegabetzeen aurka, erraustegien aurka, transgeniko eta laborantzaren aurka, bakarreko ereduaren aurka, multinazional eta korporazio handien aurka, zerbitzu publikoen murrizketen aurka, basoen alde, abortu eskubidearen alde, etxeko langileen lan-baldintza duinen alde, pentsio duinen alde, etxebizitza eskubidearen alde, zaintza zerbitzu publiko eta duinen alde,...

Aldi berean, bizitza onak eraikitzen lagunduko duguten alternatibak eraikitzen jarraitu behar dugu: desazkunde proiektuak, zaintza lanak kolektibizatzeako egitasmoak,, gune autogestiona- tuak, agroekofeminismoa eta elikadura burujabetza sustatzen dituzten prozesuak, korporazio handien edo bankuen desjabetzeak, espazio edo lur-eremu kolektibizatuak berreskuratzea...- Bestelako denbora politika batzuk sustatu behar ditugu, lanaldien murrizketa zein lan produktibo zein erreproduktiboan birbanaketan oinarrituta.

Eta hori guztia egiten dugun bitartean, borroken eta gatazken ondorioei kolektiboki aurre egiten jarraitu beharko dugu. Indarkeria matxistak gu kolpatzen, bortxatzen, torturatzen, erailtzen, gure hitzazalantzan jartzen... jarraitzen duen bitartean, ez dugu bakerik izango. Ezinbestekoa da bakegintzan eta justizian begirada feminista txertatzea. Gatazkek elkarloturik ulertu eta borrokatu behar ditugu, eta konponbideak jarri. Horretarako, feministon parte-hartzea hauspotu behar da erabaki guneetan. Gainera, gure komunitateetan eta lurraldeetan eman diren gatazkek eragin zuzena izan dute guregan beraz osatze prozesuak kolektiboki eta politikoki lantzeko beharra daukagu.

## **NOREKIN egingo dugu prozesua?**

Subjektu politiko anitzen artikulaziotik eta aliantzetatik egin nahi dugu osotasunaren borroka: Komunak diren esplotazio bideetatik ekinda, eta espezifikokoak diren dominazio egoerak aitortuta. Askabide nagusi eta bakar batek ez gaitu menpekotasun guztietatik libre egingo. Sistemaren ertz guztietatik borrokatu behar dugu; bide ugariak, erritmo ezberdinak eta subjektu politiko anizkoitzaren artikulazioa behar ditugu. Ez dugu botere kuota hutsik nahi; politika guztietan feminismotik eragiteko eta botere egiturak iraultzeko ari gara lanean. Ez dago errezeta bakarra; dominazio anitzeko sistema bada, alternatibak ere anitzak izango dira.

Mugimendu Feministaren baitan lidergotza anitzak eraiki eta honek duen potentzial kritikoa indartu nahi dugu interpelaziorako eta interlokuziorako agente izateko. Gainera, aldaketa Herri mugimendu ezberdinekin aliantzan eta elkarlanean egingo dugu.

Feminismoak egiten gaitu herri. Eraiki dezagun, bada, gure herriaren burujabetza feminista elkarri begiratzuz eta elkarrekin ahaldunduz.